

pektral bat dago memorian, baina presente ez dagoen komunitate batekin. Izan ere, liburuan nire herriko pertsonak ere badaude: dagoeneko ez daude hemen, baina haiekin bizi izan nintzen. Maitatu nituen, oraindik ere maitatzen ditut, eta bizirik diraute olerkietan. Beraz, elkarriketa materiala eta immateriala dago, memoriaren bidez ikusezina ikusgarri bilakatzeko behar bat, eta jada ez dagoena presente egitekoa, kontzeptuaren zentzu tradizionalean.

Alde erlijioso bat ere badago?

Ez erlijiosoa zentzu katolikoan, baina badago alde espiritual edo, behintzat, transzendente bat. Hau da, material harago doan hitz bat, ezagutza mota intuitibora heltzen dena: hori da poesiak eskaintzen diguna.

Feliz Idade-n aipatzen duzu edertasuna dela garrantzitsuenena. Baina edertasun paradokiko da, biltzen baititu orobat alabaren jaiotza eta aitaren heriotza. Zuretzat, zer da edertasuna?

Edertasuna bizitzaren osotasuna da. Ezin dezakegu edertasuna ulertu bizitzaren presentziarekin soilik: bizitzaren zikloa existitzen delako, baina baita heriotzarena ere. Bi ziklo horiek batuta onartzeak ematen dio zentzu munduan egindako bideari, eta galeak jasaten laguntzen digu. Alabari eskaintzen diodan hitzaurre-gutunean, saiatzen naiz hari azaltzen gizaki baten heriotzarekin materia indibiduala soilik desagertzen dela, baina pertsona hori betikotua geratzen dela bere ondorengoen eta memoriaren bitartez. Eta baduela, halaber, jarraikortasuna naturan. Horregatik dago poema bat *Mentres a herba medre* (Belarra hazten den bitartean) izeneko. Nire aitaren heriotzaren ondorengo lehen udaberria heldu zenean, eta ikusten nuenean belarra hazten, are modu neurrigabea, eta loreak jaiotzen, eta, orokorrean, bizitza biziberritzen, sakonki ulertu nuen kosmosak nola funtzionatzen duen, eta bizitza ez dela inoiz eteten. Aita laboraria zen, eta berak ulertzen zuen naturaren zentzu sakon hori; legatu hori nigana heldu denez, onartu ahal izateak galeraren mina arintzen dit.

Ziklo hori zure olerkien forman ere agertzen da, ezta?

Ez dut nahita egin, baina estruktura zirkularra modu naturalean ateratzen da *Feliz Idade* liburuko olerkietako askotan. Zirkularra da liburua, nahiz eta narrazio pertsonal edo familiar gisa irakurri daitekeen kasik.

Samurtasunaren gogorra

Iratí Majuelo

Nobel Sariak euskara-tzeak gurean emandako uztia oparoaren emaitza da *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* liburua. Zaila da Tokarczuken eleberria hitz gutxitan definitzen, eta akaso komenigarriagoa da narrazio pertsonaiaren bidez aztertzea, hura baita lan honi osotasun adina berezitasun ematen dion elementua.

Janina Duszejko emakume heldua da, zubi-ingeniari gisa atzerrian lan egin ostean, Poloniako herrixka batera lekualdatu dena. Goi-ordokian bizi da, auzokide gutxi ere eremuan, basoaren atarian. Neguak zein gizarte hotzak inposaturiko arau gogorrek zailduriko emakume irmoa da, ez horratik samurta-

sunik gabea. Duszejko andrea-ren ahotsetik ezagutzen ditugu istorioaren nondik norakoak, gertakari bitxiak eta hilketak, baina batez ere, munduari beha-



'Erabili goldea hilen hezurren gainetik'

Idazlea: Olga Tokarczuk.
Itzultzailea: Amaia Apalauza eta Sonia Kolaczek.
Argitaletxea: Elkar.

tzeko modu hunkibera bezain latz bat ekartzen dute bere hitzek paperera, gizakien gainetik natura lehenesteko unibertso sentisibler bat.

Duszejko andrea xaloa baita baina ez ergela, ume eta heldu zaurgarriekin goxoa, arimarik gabeko pertsonekin lehorra, ideia argiko emakume irudimentsua. Tokarczukek bikain islatzen du atso zorrotzat jotzen duten andre heldu baten bizitza, topikoan erori gabe, are jendeak izaki baliogabe gisa tratatzeko duen joerak emakumerengan eragindako mina eta erreakzioak hitzetara abiltasunez ekarriz. «Mundu guztiak badaki zer onura dakarten gauza baliagarriak; ez, ordea, baliogabeek», esaldi horretan laburbiltzen da protagonistak munduaren aurka abiatzen duen mendeku pertsonala, bazterrean ahaztutako aldeko iraultza isila.

Protagonistaren bizitzak eta unibertso propioak eleberriaren interes handiena bereganatzen duten arren, trama aurrera darabana herrixkan eta inguruetan jazotako hilketa-katea da. Miste-

rioiari liburu osoan zehar eusten dio Tokarczukek, nahiz eta gertakari bitxion garrantzia, eta ondorioz, istorioaren tentsioa gorabeheratsuagoa den, protagonistak esku artean darabilen astrologiaren joan-etorriak bezain. Amaiera aldera indarra hartzen du berriz ere tentsioak, aurretik lotugabe utzitako hari-muturrak berreskuratzen direlarik. Hala, Duszejko andreak bidean murmurikatutako esaldietan uzten dituen pista antzemango ditu aurrerago irakurleak, eleberri beltzaren ukituez gozatuz.

Tokarczukek protagonistaren pentsamenduen bidez sortzen duen unibertso propioa, paisaia ideologiko eta kulturala gurera ekartzea ez zen erraza izango Apalauza eta Kolaczekentzat. Esan beharra dago lan ezin hobea egin dutela itzulpenean, erregistro aldaketak zainduak dira oso eta eleberriak bere xarma eskaintzen du euskaraz ere, Nobel saridun poloniarren imajinarioa eta gaitasun narratiboa agerian geratzen delarik.

Inurrien konspirazioa

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Astiberri argitaletxearen Txikiberri bildumak gizentzen jarraitzen du. Bizkarreko zenbakiaren faltan, haien katalogoaren arabera, *Patti eta inurriak* hamargarrena da.

Patti neskatoa da protagonista. Kapituluak gabeko kontakizuna da, abentura fantastikotzat jo daitekeen generokoa, 48 orrialdekoa. Irakurle hasiberriak kontakizunaren *cliffhanger* uneek baliatu beharko du, irakurraldia dosifikatzeko.

Letra lotuan idatzita dago; apustu tipografiko arriskutsua da, eskuzko idazketaren egoera zailantzatia tarteko.

Patti da istorioan jarduten duen gizaki bakarra. Abenturaren hasieran zomorroen tamaina hartzen du, esatea komeni ez den

arrazoiengatik. Intsektuen artean bizitzera egokitzen saiatzen ari dela, ordea, konspirazio trama baten erdian ikusiko du bere burua. Lorategi hartako inurriak sekta sekretu bat osatu dute, eta protagonistaren taldea, harekin topo egitean, arazotan sartuko da.

Kontakizunak erritmo bizia du, eta amaierak ezustekoa da. Roald Dahlen *Sorginak* obraren antzera, oreka berrian heroia ez baitu hasierako izaera berreskuratzen.



'Patti eta inurriak'

Idazlea eta ilustratzailea: Anouk Ricarda.
Itzultzailea: Bego Montorio.
Argitaletxea: Astiberri.

Muga-mugan

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Igual inor gutxiri inportakozai, baina liburu hau primerakoa da album ilustratuaren eta ipuin irudidunaren arteko muga deskribatzeko. Albumaren sorreratik bertatik dator zailantza, irristakorra baita kontua.

Funtsean nire iritzia izan ohi da *Kuoi* bezalako testuak ipuin ilustratuak direla, testua belarriz jaso daitekeelako eragozpenik gabe, irakurle (edota kontalari) baten ahotik.

Kuoi herri ipuinen egitura duen kontakizuna da, gure Per-nando Amezketa-aren edota Asia Txikiko Nasrudinen kide txinatarrak: bizkortasuna eta amarru irudimentsua arma baktzat harturik, parean jartzen zaizkion guztiak mendeen hartzen dituen pertsonaiaren aben-

turak, irakurleari irribarre txikia ateratzen diotenak, gutxienez.

Gauzak honela, ilustratzaileak sartzen dira artean dena *aldebestera*, editoreen konplizitatea lagun: tamaina handiko (26x25cm, metro erdialde zabali) eta kalitatezko paperean kokatutako ilustrazioak ditu, testua bazterreratzen duten irudi dinamikoak eta, kontakizunaren haria eraman ez, baina tonua eta fokua ezartzen dituzte.

Bai horixe, muga-mugan...



'Kuoi'

Idazlea: Fito Rodriguez.
Ilustratzailea: Irimarra.
Argitaletxea: Txalaparta.